

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

BPGk erritmo leunagoan hazten jarraitzen du eta joera positiboari eusten dio Volkswagen-en jarduerari esker

Azken urteko aurrerapen ekonomikoa % 3,1 da, eta % 0,6 urteko lehen hiruhilekoan

Ostirala, 2016.eko apirilak 29

Nafarroako Barne Produktu Gordina 2016ko urtarrila eta martxoaren artean % 0,6 [igo](#) da aurreko hiruhilekoaren aldean eta, azken hamabi hilabeteotan, ekonomia-jarduera % 3,1 hobetu da, Nafarroako Estatistika Institutuak egindako kontabilitate-aurrerapenaren arabera.

Ayerdi lehendakariordeak prentsaurrekoan eskualdeko ekonomiaren "aurrerapen-profila" nabarmendu du, urte arteko bere hazkunde-erritmoa pixka bat igo duena (2015. urtea % 2,9 rekin amaitu zen), nahiz eta zabalkunde-egoera leuntzen ari den, nazioarteko eta estatuko egoeraren karira.

"Neurritzko hazkunde batera goaz iazko azken zatian genuenarekin alderatuz, eta urteko bigarren zatian gehiago nabaritu da. Hazkunde txikiagoa da, baina inola ere ez atzeraldi-egoera bat", azaldu du Ayerdik.

Lehendakariordeak aurreratu duenez, BPGk hazten segituko du Europaren ekonomia-aurrerapenari esker (% 0,3-0-% 4), erreferentziazko merkatu nagusia dena; ez ordea AEBkoa, uste baino gutxiago hazten ari dena.

Lehendakariordeak "oso positibotzat" jo ditu eskualde-jarduerarako (industriaren traktore delako eta esportaziotan eragina dutelako) VWk aurtengorako auto-fabrikazioa handitzeko egindako berrikuspenak; hala, lau hilabeteetan bertako ekoizpena % 10 igo du.

Testuinguru berri hau ikusirik (petrolioaren prezioaren balizko igoera, AEBetako egoera ekonomikoa, Espainiako gorabehera politikoa, indarra hartzen ari diren ekonomiak), Foru Gobernuak eskualdearen makro-egoera berrikusiko du. Gogora ekarri behar da NDFk hamarren bat jaitsi duela Espainiarako aurreikuspena (% 2,6raino), ekonomia aurreratuen artean



Ayerdi lehendakariordeak neurritzko hazkunde bat aurreikusten du, eta joera horretan Nafarroako Volkswagen-ek iragarritako ekoizpen-igoerak lagunduko du.

buru dena; eta FUNCASek % 2,7ra leundu du; nolana ere, "oso positiboa da", Ayerdik dioenez. Foru Gobernuak % 2,9ko hazkundea iragartzen zuen 2016rako.

Espainiarekiko diferentziala murriztu da

Nafarroak lehen hiruhilekoan izandako aurrerapena Espainian izandakoaren (% 0,8) azpitik dago bi hamarren, gaur, ostirala, Estatistika Institutu Nazionalak zabalduko informazioaren arabera. Urteko aldaketa, berriz, estatukoa baino hiru hamarren txikiagoa da (% 3,4).

Bi lurraldeetako aurrerapen-tasak leundu egin dira aurreko hiruhilekoen aldean, egoeraren adierazleetan antzematen zen moteltzearen adierazgarri.

Azken bi hiruhilekoetan estatuko eta eskualdeko ekonomiaren artean sinkronizazio handiagoa izan da. 2015eko lehen zatian Espainiako BPGn izandako aurrerapena Nafarroakoa baino handiagoa zela ikusten bazen ere, azken hilabeteotan igoera horiek berdintzen hasi dira.

Adibidez, Gizarte Segurantzako afiliazioen diferentzialari dagokionez, 2015eko lehen hiruhilekoan 9 hamarren zen (Espainiako hazkundea % 3,3 eta Nafarroakoa, % 2,4), eta aurtengo lehenengoan 1 hamarren baino ez da (% 2,8 eta % 2,7).

Urtarrileko motelaldia

Lehen hiruhilekoa kezka-maila handiarekin hasi zen (burtsa-aldakortasuna, petrolio-upelaren merkatzea) Txinatik zetozen albisteak zirela eta. Finantza-merkatuak otsailean eta martxoan egonkortu egin dira, eta testuinguru horrek jarduera sustatzen lagundu du.

Nafarroan, urtarrileko "motelaldiaren" ondoren hautematen den jarduera-susperraldia egoeren adierazleek adierazten dute. Adibidez, hil horretan industriaren ekoizpena -% 4,3 izan zen; auto-ekoizpena -% 29,4 eta balio ia nuluak izan zituzten ere txikizkako merkataritzak (+% 0,5) edo zerbitzu-sektoreko jarduerak (+% 0,5). Otsail eta martxoan jarduera bizitu egin da: industria ekoizpena, % 2,6; auto-ekoizpena, % 9,9; txikizkako merkataritza, % 4,9; zerbitzuak, % 5,6. Industria-giroaren adierazlea 8 puntukoa zen abenduan eta 0koa urtarrilean; otsailean eta martxoan, berriz, 7 eta 6koa, hurrenez hurren.

Zerbitzuen dinamismoak tiratu dio eskualdeko hazkundeari, industriako adarretan izandako leuntzea konpentsatuz, hiruhileko aurrerapenetik ondorioztatzen denez.

Zuzenketa teknikoa

Nafarroako Kontu Ekonomikoak egiteaz arduratzen den Nafarroako Estatistika Institutuak egoeraren adierazleak eguneratu ditu eta iazko BPGren hiruhileko banaketa berrikusi, egoeraren adierazleen eguneratutako informazioak eraginda.

Nafarroak 2015ean izandako batez besteko hazkundeak +% 2,9 izaten jarraitzen du, baina hiruhileko diferentziak aldatu egin dira. Aurreko banaketarekin jarraituko balitz, urte arteko aldaketa % 3,3 handituko zen, aurreko hiruhileko aurrerapen-erritmo bera, Ayerdik azaldu duenez.